

Joxe Iriarte Bikila

ZUTIK-EKO KIDEA

Desjabetzak

Komunikabide guztietan albiste izan dugu Aste Santuko ekaitzak ekarri dituen haizete, elurte, eurite eta ondoren sortu den uholde arriskua. Ez ordea, zenbait eskualde eta herriei (Aramaio, Eskoriatza, Legutio, Arrazola...) Fomentoko Ministeriotik gainera etorri zaien lur desjabetze zaparrada, are uholdea. Zer dela eta desjabetze eraso hori? Bada, lur horiek interes publikokoak bihurtu omen dira, delako Abiadura Handiko Trenak zeharkatuko dituelako. Eta, hasiera besterik ez da.

PRIBATIZAZIOA IZURRITEA bihurtu zai-gun eta kapitala jaun eta jabe den garaiotan interes publikoaren aldeko desjabetzeak egitea ez al da txalogarria? Hala balitz! Esate baterako, desjabetze horiek behar bezala ordainduak izateaz gain herri honek behar duen trenbide sare soziala bultzatzeko balira... Alabaina, desjabetze horiek ekologikoki oso larria eta sozialki kaltegarria izango den makro-proiektu baterako dira, zeinekin onuradunak oso gutxi izango diren.

Manuel Sacristan zenak zioskuna dut gogoan: "Ezinezkoa da Lurraren lagun bihurtzea sistema bat bere dinamika esentziala hondamendi gero eta handiagoa eta itzulezina denean". Dinamika esentzial hori apurtzeko derrigo-



DANI BLANCO

rezkoa dugu emergentzi galgak sakatzea eta lehenbailehen mundu jasangarri eta sozialki justuago baten aldeko norabidea hartu. Hor datza gakoa!

NORABIDEA ALDATU. Ni ezkerreko diskurtsotik aspaldi desagertu diren nazionalizazioak edo sozializazioak gauzatu ahal izateko behar diren desjabetzen aldekoa naiz, eta zenbait kasutan, indemnizaziorik gabe, gainera. Hots, besteak beste, herri pobretuen zukuez aberasturiko banketxeak; mundu osoan naturaren bidegabeko ustiaketetatik gorpuzturiko sek-

tore energetiko nagusiak; eta langileen izerdiz sorturiko sistema produktibo osoa, eta or ohar nazioaren ondasun guztia gizartearen onurarako eta herritarren zerbitzurako desjabetuko nituzke, hain zuzen. Eta, gainera, aberastasun horiekin kontsortzio internazional bat sortu beharko genuke mundu osoan dauden arazo ekologikoak konpontzeko, osasun arloko beharrak betetzeko eta herrien arteko parekidetasun bat lortzeko!

ZEIN HARROPUTZAK diren gure mandariak baserritar zein lur jabe txikiekin, eta zein apalak eta otzanak kapitalista handiekin! Adibide xume bat: noizko kapital espekulatiboei Tobin jaunak proposaturiko %3ko tasa ezartzea? ■

«
Ni ezkerreko diskurtsotik aspaldi
desagertu diren nazionalizazioak
edo sozializazioak gauzatu ahal
izateko behar diren desjabetzen
aldekoa naiz, eta zenbait kasutan,
indemnizaziorik gabe, gainera
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Omen zaizkigu heda-bidetako biztanleak. Hala diote adituek

behintzat. Eta noski, eredugarrienak, telebistan bizi direnak, gure etxetako bisitariak. Reala, nahiz maila galdu, egunerokoa dugu otordu ostetan. Presidente du izarra, eta kontseilariak ezezagunak. Artilleroa da, obusak beti pronto dituen. Jada, dozena erdi bat jaurtiak ditu eta beste hainbeste, arrastaka daraman leran botatzeko prest. Norabide bakarrean orain arte, aldagela eta entrenatzaile aulkia. Ez dauka zaila, jokalaria eta bereziki entrenatzaileak aho txikikoak baitira, hortzak eta haginak estu —estu dauzkatenak erakusteko lotsaz—. "Bakoitzak

Eredugarriak

indarraren berri, eta hondora doan itsasontziaren arratoiena eginez bizi dira sukaldeko pubelaren inguruan bero. Colemanek alde egin zuen. Eizmendi funtzionariaren pagotxa. Juanma Lillo ekarri du Badiolak deus gertatu ez bailitzan. Tolosan jaio gaztelarraren berri ez diote —Ispizua garai bateko Mirandesko entrenatzaileari galdetu— bere laguntzailatzat eraman eta Ebrotik urruntze lanak egin zituenari buruz zer konta baduenari. Ez dakit zer egingo duen Lillok Realean, baina badakit aldagelan jokalariek beharko luketen solidaritatea zer den ez dakiela. ■